

4.UD-ORDAINTZEKO ETA KOBRATZEKO ERAGIKETAK: ERREGISTRO-LIBURUAK

1. Sarrera

Enpresak etengabe eragiketak egiten ditu, eta ondorioz gastuak eta sarrerak sortuko dira. Batzuetan sarrerek eta gastuek berehalako kobrantzak eta ordainketak sortzeko aukera ematen dute, eta beste batzuetan, berriz, kobrantzak eta ordainketak atzeratu egiten dira. Adibidez, altxortegi-desoreka egon daiteke produktu baten salmenta eta kobrantzaren artean, edo gastuaren eta ordainketaren artean.

Gerta daiteke ordainketa zehatz bat egin behar izatea une jakin batean, eta une horretan nahikoa likidezia –dirua, kutxan edo bankuan– ez izatea, nahiz eta oraindik gauzatu gabeko kobrantza-eskubideak –adibidez, bezero baten faktura– eduki.

Enpresan badago altxortegiaz arduratzen den pertsona edo departamentua.

Enpresak altxortegiaren kudeaketa eta aurreikuspena egin beharko du, kobrantza-eta ordainketa-arazoei aurrea hartu eta ebatzi ahal izateko.

2. Kutzaren kudeaketa. Kutzako erregistro-liburua

Altxortegiaren kudeaketan lehenengo pausoa enpresako eskudirua edo kutxa-kontuko dirua kontrolatzea da. Horretarako erabiltzen da kutxako erregistro-liburua.

Kutzako erregistro-liburuan egunero eskudirutan egiten diren sarreren eta irteeren oharrak jasoko dira, baita jasotako txekuen oharrak ere (oraindik bankuan sartzeko enpresan dauden txekueak).

Ohar guztiek eduki behar dute dagokien egiaztagiria.

Saldo-zutabeak zehaztuko digu une oro dagoen dirua.

Lanaldia bukatzean kutxako arduradunak –oharrak jasotzeaz gain– **kutzako zenbaketa** (*recuento de caja*) egin beharko du; billeteak eta txanpon guztiak ordenatu eta zenbatu beharko ditu eta euren balioa jaso. Gainera, egiaztatu beharko du kutxako zenbaketaren emaitza, kutxako erregistro-liburuko saldoarekin eta eguneko kobrantza eta ordainketen egiaztagiriekin bat datorrela, hau da, **kutzako kontaketa** (*arqueo de caja*) egin beharko du.

Gehien erabiltzen den formatua hau da:

KUTXAKO ERREGISTRO-LIBURUA				
DATA	KONTZEPTUA	KOBRANTZAK	ORDAINKETAK	SALDOA

KUTXAKO KONTAKETA		
DATA	ORDUA:	ARDURADUNA
BILLETEAK	ZENBATEKOA	GUZTIRA
200€		
100€		
50€		
20€		
10€		
5€		
BILLETE GUZTIRA		
TXANPONAK		
2€		
1€		
0.50€		
0.20€		
0.10€		
0.05€		
0.02€		
0.01€		
TXANPON GUZIRA		
TXEKEAK		
TXEKE GUZTIRA		
BESTE BATZUK		
ZENBAKETA GUZTIRA		

3. Banku-kontuen kudeaketa: Bankuko erregistro-liburua

Enpresak kreditu-erakundeekin dituen eragiketak –kobrantzak, ordainketak, transferentziak...– kontrolpean izan behar du, hau da kontu korrante, aurrezki-kontu eta kreditu-kontuen bidez egiten dituen eragiketak. Kontu bakoitzeko orri edo liburu bat eramango du. Banku-kontu bakoitzean ematen diren diru-sarrerak eta -irteerak biltzen ditu. Diru-sarrera eta -irteerak eskudirutan egin daitezke edo txekearen, transferentziaren, letren... bidez.

Saldo-zutabeak zehaztuko digu kontuan une oro dagoen dirua, kutxako erregistro-liburuan bezala. Baita ager daiteke eragiketa hori jasotzen duen kontabilitate-idazpenaren zenbakia ere.

Bankuko erregistro-liburuan **banku-berdinkatzea** (*Conciliación bancaria*) egin beharko da: banku-estraktuen saldoak eta kontabilitateko saldoak konparatuko dira. Desberdinak balira, horren arrazoiak aztertu beharko dira:

- Bankuaren akatsa.
- Enpresaren akatsa.
- Gerta daiteke akatsik ez egotea, eta txekeak kontutik zuzenean deskontatzen ez direnean diferentzia egotea.
- Altxortegi-desoreka egotea.

Gehien erabiltzen den formatua hauxe da:

BANKU K/K ERREGISTRO-LIBURUA				
BANKU-ERAKUNDEA HELBIDEA KONTABILITATE KONTU-ZENBAKIA: 57200000X				
DATA	KONTZEPTUA	ZOR (kobrantzak)	HARTZEKOA (ordainketak)	SALDOA

Banku Liburua (Kreditu-kontua)						
Data	Kontzeptua	Zor	Hartzekoa	Saldo erabilia	Saldo ez erabilia	Saldo gaitua
		(sarrerak)	(irteerak)			

4. Igorpen-efektuen kudeaketa: ordaintzeko efektuen eta kobratzeko efektuen erregistro-liburua

Enpresak erabiltzen dituen agiriak –kanbio-letrak, ordaindukoak (*pagaré*), ordainagiriak– dira, orokorrean hornitzaileei eta hartzekodunei ordaintzeko eta bezeroei eta zordunei kobratzeko erabiltzen dira.

Agiriak kobratu behar dituztenen abantailak hauek dira:

- Ez ordaintze kasuan, auzibidera jo dezakete, baita zordunari kobratu ondasunak bahituz.
- Merkataritza-deskontua erabili daiteke agiriak aurreikusitako muga-eguna baino lehenago kobratzeko.

Agiri horiek kudeatzeko talde bitan banatu behar ditugu: ordainketa agiriak eta kobrantza agiriak.

4.1-Ordaintzeko efektuen erregistro-liburua

Liburu honetan enpresak ordaindu behar dituen efektu guztien kontrola eramaten da. Kontrolik onena egiteko, ahalik eta datu gehien idazten saiatuko gara: kopurua, muga-eguna, nork igorri duen (libratzailea), non ordaindu behar den...

Azkeneko aukera efektu bat ez ordaintzea edo itzultzea litzateke. Egoera horretara heldu aurretik beste konponbide batzuk aurkitzen saiatuko gara: adibidez, hartzekodunarekin letra berri bat negoziatu...

ORDAINTZEKO MERKATARITZA EFEKTUEN ERREGISTRO LIBURUA						
Agiri mota	Igorpen data	Onarpen data	Epemuga	Zenbatekoa	Hornitzailea/Hartzekoduna (libratzailea/igorlea)	Bankua

4.2-Kobratzeko efektuen erregistro-liburua

Liburu honetan enpresak kobratu behar dituen efektu guztien kontrola eramaten da. Kontuan izan behar dugu kobrantzarako efektuak hainbat egoeratan egon daitezkeela: onartu gabe, onartuta, kobrantza-kudeaketan, deskontatuak eta ordaindu gabeak.

Efektuak aurki daitezke egoera hauetan:

- **Zorroko merkataritza-efektuak:** bezeroak letra ordaintzea onartu du.
- **Kobrantza kudeaketan dauden merkataritza-efektuak:** enpresak efektua bankura eramaten du epemuga baino egun batzuk lehenago, bankuak muga-egunean kobrantza kudeatzeko.
- **Deskontatutako merkataritza-efektuak:** enpresak efektuari dagokion dirua aurreratzeko eskatzen dio bankuari, efektuaren muga-eguna heldu eta bezeroak ordaindu arte.
- **Merkataritza-efektu ordaindu gabeak:** Muga-eguna heltzen da, bezeroak ez du ordaintzen eta bankuak efektua itzultzen digu (efektua kobrantza-kudeaketan edo deskontatuta egon zitekeen).

Formatuak honako hauek dira:

KOBRAITZEKO MERKATARITZA EFEKTUEN ERREGISTRO LIBURUA						
Agiri mota	Igorpen data	Onarpen data	Mugaeguna	Zenbatekoa	Bezeroa/Zorduna (libratua)	Bankua